

ZER BERRI UREN KUDEAKETA GIPUZKOAKO KONTSORTZIOAREN ESKU
KULTURA GALIPOTEKO JAIA MAIATZAREN 29AN

pipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 90. alba 2004ko maiatzaren 14a



Aitor Amor
**Euskal makilagile
bakanetakoa**



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Iragarlearen txokoan: Itur Iturgintza

Santa Ana 20, behea / Telef. 943 751241 / 639179696

*“Lan mota asko egiten ditut;
iturgintza orokorrian, gasa eta
berogailuak jarri...”*

Noiz zabaldu zenuen enpresa?

Oraindala 7 hilabete hartu neban enpresia.

Zenbat langile zarie enpresan?

Neu bakarrik nabil oraingoz.

Ze zerbitzu eskeintzen dozu?

Lan mota asko egiten ditut, iturgintza orokorrian,
gasa eta berogailuak jarri...

Ze ingurutan egiten dozu lan?

Gehixenetan herrixan ibiltzen naiz eta bestela,
inguruko herrixetan; Bergara, Eibar, Elgoibar...
Beste herri batzuetara be juaten naiz baina
herriko jentian etxietara normalian.

Nora jua izan zara urrinen lanera?

Errioxara jua nintzan behin.



Hemen herrixan badao lanik?

Bai, badao. Izugarri bez, baina guretako
nahikua.



Herriaren benetako edertasuna

LUIS ANTONIO GOMEZ

Gogoratzen naiz zer erantzuten nion galdetzen zidate-nean ea nola onartu nuen Soraluzera etortzea, hain herri zatarra izanda. Erantzuten nien, herri baten edertasuna ez zegoela erabat bere paisaian edo harrietan, pertsonetan baizik.

Gure herriak aztertzen baditugu ikusiko dugu nola Soraluzek denbora askoan ez duela garbitu bere aurpegia. Azken boladan, poliki poliki, gauzak egiten ari dira: desiatzen dugun herriguneko sahiesbidea, etxebizitza berriak, fatxaden txukuntzea, etab.

Baina askotan pentsatzen dut ea benetako beharrak kontutan hartzen ditugun ala bakarrik itxurak mantendu. Adibidez herri erdian fatxada txukundu dute baina kantoitik beste aldera daude etxe horren benetako arazoak, ea bere garaian horretarako konponketak ere heltzen diren.

Beste adibide garbi bat gure kanpandorrearena da. Orain dela gutxi nahiko diru gastatu genuen zituen arazoak konpontzeko, zeren eta harri batzuk jaustekotan zeuden. Harria aztertu zen, teknikoak eman zioten behar zuen tratamendua eta goi aldeko harria garbitzerakoan konturatu ginen zein zen bere benetako kolorea eta ez zikinkeriazko kolore ilun hori.

Erlojua ere polita geratu zen. Baina barrutik ez zen ezer konpondu, barruko estruktura ez zen aztertu, erlojua lehen bezala geratu zen, eta kanpain batek nekez ematen ditu bueltak.

Garrantzitsuena aztertzen badugu, Soraluzeko herritarron artean, gutxi izaten da gure herriaren alde lan egiten dutenak. Kultur mailan eta gizarte mailan talde gutxi daude, eta askotan pertsona berak aurkitzen ditugu talde ezberdinetan.

Eta nolako laguntasuna jasotzen dute talde hauek? Nire jarrera beti izan da kultur eta gizarte mailan murgiltzen diren taldeei ahal den laguntza gehien ematea; lokalak utziz, bai bileretako, ikastaroak egiteko, hitzaldietarako, kontzertuetarako, zine emanaldietarako, etab. Horrez gain, herrian burutzen diren beste ekitaldietarako etortzen dira aulki bila.

Nire ustez, gaur egun herriaren alde kezkatzen direnei ahal den traba gutxien jarri behar genieke. Eurak, euren jakinduria, denbora, sormena eta ilusioa jartzen dituzte, eta beste batzuek bitartekoak jarri beharko dituzte; eta beraiek ez badituzte jartzen, parrokia ere ahal duen neurrian, bere laguntza emateko prest dago.

Beraz benetako herri ederra nahi badugu, geure eskuetan dago.

Telegrapak

Buff!. Stop. hainbeste berri dago!. Stop. sinisterik be herri xaxtar hone-tan hainbeste kontu gertatzen danik hamabost egunian!. Stop. nundik hasi be ez dakit!. Stop. ondokotik ia!. Stop. hau bai dala abadia hau!. Stop. herri kulturaren alde daguana. Stop. baleike hola gazte jentia Elizara urreratzia!. Stop. eta poliki poliki domekako mezetara. Stop. zeinek daki!. Stop. je, je! igual ikusiko dogu hori be!. Stop. badauka Udalak zeinengandik ikasi!. Stop. eskerrikasko Luis! . Stop. (Jangoikuan legia, baktzari beria!). Stop. Gaztetxian lapurretan ibili diranak ez dira ba hain onak!. Stop. hurrenguan be inor enteratu barik egin. Stop. Pagobedeinkatu be hor dago, ez ahaztu!. Stop. han ez da autorik aparkatuko ez?. Stop. martxa honetan... Stop. Udaltzain gixajuak!. Stop. ja, ja, ja! zelako grazia!. Stop. ikusiko dozue bentanan multatxua topatzen dozuengan... Stop. hobe ixilik gelditu eta hurrenguan hobeto aparkatu!. Stop. arrazoa dauke eta!. Stop. herrixa ez da autuendako, jentiaendako da. Stop. eskerrak Galipotii!. Stop. han ez dago autorik!. Stop. aurtan jaixak gainera!. Stop. ibili bixkor bazkarirako izena emoten. Stop. plazak mugartuak dira ji,ji,ji!. Stop. izan zaitezte zoriontsu... Stop. brixkan egurra emon daben Ziriaka eta Maria Luisa bezain zoriontsu! . Stop. bada zerbait! . Stop. bejondeizuela!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.

Telefonoa 943 75 13 04

comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZEGO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

Erreportaia

Lantokian sartu garenean arratsalderoko lanaldiari ekin aurreko otorduxoa egiten harrapatu dugu Aitor eta gu xea gonbidatu gaitu. Ondoko gelan hogeinaka makila ditu zintzilik, adar pareak nonnahi eta esku tresnak, eta makina pila.




Zorion agurrak



Alfonso Chueca
Apirilare 30ean
ZORIONAK!!
Maitasunez zure
guraso, anai-arreba
eta loiben partetik.



Jon Elizburu
Maiatzaren 12an
31 urte
ZORIONAK!!
Etxeokoen partetik.



Aitor Santiago
Maiatzaren 15ean
26 urte
ZORIONAK!!
Aupa Dalo! segi
jator jator!
Lagunen partetik.



**Juan Antonio eta
rune Varela**
Maiatzaren 21ean eta
20an
ZORIONAK!!
Etxeokoen partetik.



jaiotakoak

Naïm Salgero Cortes
hildakoak

Julia Lizarralde
Miren Alberdi

ezkondurak

Nerea Torrano eta
Aitor Gabilondo
Juan Martin Altuna eta
Maria Anjeles Nuñez

Euskal Jaiko haurrak
etxean hartzeko

Datorren ekainaren 6an Haurren Euskal Jaia ospatuko da herrian. Urtero moduan Euskal Jai Batzordeak dei egin nahi die soraluzetar guztiei egun horretan herrira etorriko diren dantzari gaztetxoak etxean hartu ditzaten. Hala egin nahi duten guztiek, Pil-pilean Euskara Elkartera (943751304) deitu beharko dute maiatzaren 24a aurretik.

ETBko programara
joateko gonbitea

Euskal Telebistak emitituko duen programa berri baterako 10 soraluzetarrek osatutako talde bat sortu nahi da. Adin ezberdinetako soraluzetarrak behar dira, ekainaren 8an egingo den grabaketan partehartzeko prest leudekeenak. Interesa duzuenok deitu Pil-pilean Euskara Elkartera.

EHĒREN ZOZKETA
013. zenbakia atera da (Ermura).

Gutunak

Ensaiazera? Kalera.

Gitarra hotsa entzuten da zubi aldean. Norbait eskean ari al da? Eskean edo... Beste lekurik ez eta nonbait ensaiatu behar. Eskerrak, gaur gutxienez aterrik dago, baina euria hasiz gero, zer? Kontzejupian be jar gaitezke. Uff! Abesti hau ez da batere ondo irtetzen. Bai, gehiago ensaiatu beharko genuke. Ze, Eibarko lokala libre al dago aste honetan. Ez, Eibarkoa ez, Gaztetxean agian. Gaztetxean besteak daude. X-i galdetuko diogu ea Bergarako lokala erabil dezakegun. Zaila izango da, han hiru taldek ensaiatzen dute...

Eibarrera, Bergarara, Elgoibarrera... eta azkenean kalean ensaiatzen amaitu behar. Hamaika eskaera udalera, beste hainbat bilera, berrehun sinadura baino gehiago herrian lokalak izatearen alde, berrogei pertsona baino gehiago Rkzulon parte hartzeko prest. Musika, an-

tzerkia, poesia, bertsoak... eta bururazten zaigun edozer gauza, baina lokalik ez. Udalaren aldetik inongo konpromisorik ez, borondaterik ez... Agian Maia-tzean, agian datorren urtean, agian... Baina urte batzuk daramatzagu kontu berdina entzuten.

Bada ordua udalak arazo honen gainean duen erantzukizunari aurre egiteko. Soraluzeko gazteok lokalak behar ditugu ensaiatu ahal izateko.

Gauzak horrela ahal izan dugun moduan moldatu gara. Eskerrak oraindik jendeak gurekin eskuzabaltasunez jotzen duen. Lokal asko inprobisatu behar izan ditugu, eskerrik beroenak gutzientzat, batez ere Luis parrokoarentzat, prestutasun osoz antzerki taldeari ensaiatzeko lokalak eskeintzearen. **LOKALAK ORAIN!**

RK Zulo

Agenda

62AN JAIOTAKOEN BAZKARIA
Ekainaren 12an eguerdiko
14:30etan bazkaria egingo
dute Txurruka jatetxean.
Izena ekainaren 5-a aurretik.
Telef. 943 751581

(14:00etan Txoko tabernan
elkartuko dira)

44AN JAIOTAKOEN BAZKARIA
Ekainaren 19an eguerdiko
14:30etan bazkaria egingo
dute Txurruka jatetxean.
Izena emateko; Merce
943752372 eta Maria Jesus
Uzin 943751557 (maiatzaren
5erarte).

57AN JAIOTAKOEN BAZKARIA
Ekainaren 19an eta gaueko
9,30an Txurruka Jatetxean.

Interesatuak 40 e sartu behar
du bere izenean eta 1957ko
Kintoak aipatuz, Kutxako
kontu honetan:
2101.0062.15.0124507252

**JARDUERAK****Udalekuak**

"Euskal udalekuak" elkartekoek, aruten ere beraien udalekuen prestaketan aurrera doaz. Udalekuetara joatea nahi duenak izena emateko epea irekia du, Abaigar, Bernedo, Goñi eta Urdirotzeko udalekuen orrialdean: www.euskaludalekuak.org. Aurten Urdirotzen txanda berria ireki da gazteentzako auzolandegia aurrera ateratzeko. Auzolandegia honetan zirkua landuko da: malabarak, akrobaziak, antzerkia, clowna, musika, eskulanak, eszenografia, eta gidoigintza. Animatu zaitzete eta izena eman ezazue!

LEHIAKETAK**Enpresa ideiak**

Donostiako Sustapenak gazteentzako ikus entzunezko alorrean enpresa ideien lehiaketa antolatuta du. Parte hartzeko baldintzak, langabetua izan eta 25 urte baino gutxiago izatea eta burutu nahi den enpresa-jardura Donostian kokatzea. 9 sari banatuko dira.

Epea: maiatzak 24

Tesiak

Elhuyar Fundazioak, zientzia eta teknologiarekin lotutako gaia duten tesien tesilehiaketa antolatu du. Tesilehiaketa Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta Ipar Euskal Herriko unibertsitateetan egindako tesiguztiek parte har dezakete. Sari nagusia: ordenagailu eramangarria. Epea: maiatzak 31

Maketak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuak Gaztemaniak 8. maketa lehiaketa antolatu du. Bertan Gipuzkoako musika talde guztiek parte hartzeko aukera, baldin eta disko etxeren batekin argitaratutako diskorik ez badute eta aurreko edizioetan sariak izan ez badira. Parte hartu nahi duten talde nahiz bakarlariek beren maketak bidali behar dituzte gutxienez 3 kantu dituztela. Talde irabazlearen disko konpaktua editatuko da (1.000 ale) eta liburuxka bat ere edukiko du, taldeen berri zehatza emango duena. Epea: maiatzak 31

SORALUZEKOAK**Pisu bat salgai SORALUZEN**

Garaje eta guzti. Harremanetarako, deitu 656780748 telefonora.

Solfeoko eskolak

emango dira.

Interesatuok, deitu,
616533796 telefonora.

(Izen ematea ekainaren 15a baino lehen egin behar da.)

Zer irizten dotsazu?

Maiatzaren 1etik Europan 10 herrialde berri daude; Txipre, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Hungria, Letonia, Lituania, Malta, Polonia eta Errepublikak Txekiarra. Guztira 25 herrialde ditu orain Europak. Badago eztabaida egoera berri honek izango duen eraginaren inguruan.

Bdakizu Europaren irekieraren berri? Zure ustez ze ondorio izango ditu gudan?



Juanxo Hermosa
47 urte
Tornerua
Gehixenak zeintzu diran badakit, hamar gehixago izango dira. Ekonomikoki hasiera baten eskulana bertan merkiagua denez guri kalte egingo dosku baina hemendik denbora batera onuragarria izango dala uste dot.



Ane Mendia
21 urte
Ikaslia
Bai, hamar herrialde gehixago sartu dira, guztira 25 herrialde izango dira Europan. Hasiera baten zabalkuntza hau ez da ona izango ekonomia aldetik baina kulturalki irekiera onuragarria izango dala uste dot.



Rosa Zubizarreta
46 urte
Dendaria
Bai jakinaren gainian nenguan Europan beste herrialde batzuek sartu dirala baina zenbat diran ez dakit. Ekonomiari zelan eragingo dion ez dakit, ez bait dut hortaz gauza haundirik ulertzen, baina kulturalki ona izango dala uste dot.



Aitor Santiago
25 urte
Teknikua
Seguru zeintzuk sartzen diran ez dakit baina Ekialde ingurukoak dirala badakit. Ekonomia aldetik ikusita kalte egingo digu, agian lanpostuak galduko bait dira.



Roberto De La Rosa
33 urte
Iturgina
Ez, ez dakit, zabalkuntza egon bihar zala banekixan baina zeintzuk ziran idearik ez. Nere ustez ekonomikoki kalte egingo dosku. Eskulana herrialde horretan merkiagua da eta enpresa askok bertara joko dabe hemen lanpostuak jeitsieraziz.



Cristina Morales eta Joseba Gil
26 urte
Langabetua
Ez dakit zein herrialde sartu dan baina irekiera egon bihar zala banekixan. Alde ekonomikotik ikusita hasiera baten nik uste irekierak ez doskula onik egingo, eskulana bertan merkiagua dalako eta enpresa asko juango diralako.

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Telefonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA



Kiru Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amilaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 615 70 27 65

Hirugarren lapurreta Gaztetxean

Apirilaren 30ean, ezezagun batzuek lapurretan egin zuten Gaztetxean. Itxura denez, lapurrek azpiko solairuko atea zabaltzea lortu zuten eta goiko solairuko atea hautsi ostean, kaxa baten gordeta zegoen dirua (100 euro inguru) eraman zuten gaez. Gaztetxekoen esanetan, "galdutako diruak baino min gehixago egiten dosku atiak apurtu eta holako toki baten lapurreta egitiak". Gainera, dagoeneko hirugarren aldia omen da aurten Gaztetxean lapurretan egiten dutela eta Gazte Asanbladakoak oso haserre daude. Lapurreta hauek salatzekeo lapurretaren egunean bertan kartelak jarri zituzten kalean.



Isunak aparkamentu okerrei



Udaltzaingoak jakinarazi digenez, aurrerantzean, oker aparkatuta antzematen dituzten aparkamentuak isunez zigortuko dituzte, orainartean baino zorrotzago. Udaltzainburuaren esanetan, herritar askok euren autoa edozein modutan uzteko joera hartu dute eta horrek

eragozpen handiak eragiten dizkie ezintasunen bat duten edo adinean aurrera doazen soraluzetar askori. Adibide modura, Udaltzaingoak Soraluzeko kaleetan ateratako argazki hauek bidali dizkigute. Irudiotan argi ikusten da nolako aparkamentuak egiten diren askotan.

Soraluzen 638 langunek dihardute industrian

Debegesak, Debabarreneko Gara-penerako Erakundeak jakinarazi duenez, 2003ko datuen arabera, bailaran 12.447 langilek dihardute lanean industria alorrean dauden 580 enpresetan. Industria alorreko langile kopuru handiena Elgoibarren dago (3.240) eta enpresa kopuruari dagokionez berriz Eibar dago buruan (199). Ermua, Deba eta Mallabiaren atzetik dator Soraluze, 638 langile dauzkalarik industria alorreko 37 enpresatan banatuta. Joera beheranzkoa bada ere, Debegesak positibotzat jo ditu datuok, joera hori oso arina delako.

246 Sinadura batu dituzte HZ aurkezteko

Bi astetan zehar Udaletxean sinadurak batzen izan eta gero, guztira 246 sinadura batzea lortu dute Herritarren Zerrenda datorren ekainaren 13an egingo diren Europako hauteskundetara aurkezteko ahal izan dadin.

Pagobedeinkatu ingurua herriarena

Maiatzaren 6an, Pagobedeinkatu deritzon mendigaineko inguruan 25.000 m²ko lur-saila erosteko erabakia hartu zuen Udalbatzarrak aho batez. Udalak 7.659 euro ordainduko ditu lursail hau erosteagatik eta horrenbesteko balio historiko eta kulturala duen eremu hau zaintzea da helburua.

EHEk 150 sinadura batu ditu dagoeneko

Soraluzeko EHEk maiatzaren 8an Osasungintza euskalduntzearen alde hasitako sinadura bilketan 150 sinadura baino gehiago bildu zituen. Santa Ana jaietara bitartean sinadurak batzen jarraituko dute.

FER.

S.A. Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es



TXURRUKA

JATETKEA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

Uren gestioa kontsortzioaren esku

Joan zen maiatzaren 6an egin zen Udal Batzarrak, Soraluzeke uraren ziklo osoaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku jartzea erabaki zuen gehiengoz (EAJ eta EAren aldeko 6, PSE-EEren abstentzio eta SAH eta PPren aurkako 2 boturekin). Gobernu taldearen eritziz hainbat arrazoi daude ur horniketa eta saneamenduaren kudeaketa osoa kontsortzioaren esku uzteko, besteak beste, Udalari kudeaketaren lan karga eta horrek dakarren kostu ekonomikoa kentzea (prezioak zehaztearena, kontadoreen jarraipena, fakturazioa, uraren kalitatearen kontrola, matxurak, inbertsioak...) eta Debabarreneko gaintzeko herri denak Kontsortzioaren barne izatea direla aipatu zituzten. Era berean, datozen hamar urteetarako hitzarmena indarrean sartzen den unetik (uztailaren 1a), gaur egungo uraren tasak %30eko igoera izango dutela ere aitortu zuen Gobernu taldeak.

Ehuneko hogeitamarreko igoera horixe izan zen hain zuzen SHAek bere aurkako botua emateko adierazi zuen kezketako bat. SHAtaldearen eritziz, Udalak zerbitzua pribatizatuz irteerarik errazena hartu du, "zerbitzua hobetu eta kontsolidatu beharrean, gaintetik kendu



Orainartean Udaleko langilea arduratzen da uren kudeaketaz.

du hamar urterako. Kontsortzioak eta Udalak dirua irabazteko, bizilagunak poltsikoa hustuz".

Dagoeneko 10 urte inguru dira herrian kontsumitzen diren urak Urkuluko urtegitik ekartzen hasi zirena. Urte horretatik aurrera Zeletako ur irazgailua erabiltzeari utzi zitzaion eta gaur egun Boskoitiko depositotik bideratzen dira ur guztiak, kloro bidezko tratamendua ematen zaielarik bertan.

Bidegorria itxia motordun ibilgailuendako

Udalak bando bidez jakinarazi duenez, datorren maiatzaren 17tik aurrera bidegorria itxia izango da motordun ibilgailuendako, baimenduendako ezik. Baimenik jaso ez duten pertsonak berriz, larunbat goizetan (9etatik 14:30etara) izango dute horretarako aukera, ordu horietan bidea zabalduko da eta.

Olako etxeak hormatu dituzte

Ola auzoan ibai ondoan dauden etxeetako bi hormatu ditu berriki Udalak. Ibai ondoko 5 etxeak ordenazioz kanpo daude eta dagoeneko Udalak erosi ditu horietako bi. Gaintzeko etxeetan ez da inor bizi eta etorkizunean horiek ere erosi eta guztiak eraistea da asmoa.

Guardia Zibilak hainbat herritar identifikatuarazi ditu

Joan zen asteartean, Guardia Zibilaren hiru patruila izan ziren herrian iluntze partean; Gila zubian bi patruila eta Estazioan beste bat. Gila Zubian zeuden Guardia Zibilek hainbat gazte identifikatuarazi zituzten. Ez udaltzaingoak ez eta Udalak ere, ez dute inolako azalpenik jaso.

Soraluze oztopo tranbiarendako

Jaurlaritzako Garraio Sailburuak jakinarazi duenez, dagoeneko eginda dago Aretxabaletatik Bergara bitarteko tranbia jartzeko proiektuaren zirriborroa. 2007rako funtzionamenduan izan liteke. Maltzagaraino iristeko berriz, Soraluze oztopo oso handiak daudela adierazi zuen.

Eraikuntzako langileak greban



Joan maiatzaren 10etik, Gipuzkoa osoko eraikuntzako langileak greban daude lan hitzarmen berriaren negoziaketak direla eta. Langileek soldata igoera eta laneko segurtasun handiagoa eskatzen dituzte lan hitzarmena sinatzeko baldintza moduan. Soraluze mar-txan dauden lanetan ia erabateko jarraipena izaten ari da greba eta eraikuntza lanak erabat geldituta daude, etxebizitzetakoak nahiz errepedietakoak. Autopistako lanak ere geldituta daude.

EDURTZA kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua



Eguneroko
menua eta
pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

OITXURRI ARDAU-DENDA

Gabolatz Kalea, 28
20590 SORALUZE

☎ 605 768 151 (Naiara)
☎ 667 479 350 (Roberto)



Euskal Makilak

Aitor Amor-en eskuetatik

Lantokian sartu garenean arratsalderoko lanaldiari ekin aurreko otordutxoan egiten harrapatu dugu Aitor eta gu ere gonbidatu gaitu. Ondoko gelan hogeinaka makila ditu zintzilik, adar pareak nonnahi eta esku tresnak, eta makina pila. Irrati txiki baten hotsa dator lantokiaren bazterreko txokotik. Anje Duhalderen "Eperrak" abestia entzuten da. Zirrarragarria da amaitutako makila bat eskuetan hartzea, ikutzea. Gogorak dira, dizdiratsuak eta ederrak, benetakoak, eskuz landuak.

Euskal Herrian dauden euskal makilagile bakanetakoaren lantokian izan gara eta egurra, larrua eta metala majiaz bateratzen dakien artisaurekin hitz egin dugu ofizionondik norakoez.

Zela hasi zinan euskal makilak egiten?

Ni sasoi baten asko ibiltzen nintzan mendixan. Behin, mendixan nenbilela ligamentuak apurtu nittuan eta ezin neban ez ondo ibili neretako bastoi normal bat egitia pentsatu neban. Bastoi polita egin neban eta handik hasi zan nere afiziñua. Gero egur motak ezagutzen jua nintzan, baserritarreri zuhaitz moten izenak galdetzen eta abar. Baina jentia bastoi eta makila soilak egiten ditu, Euskal Makila bat egitia oso ezberdina da.

Zertan da ezberdina euskal makila?

Euskal Makilia egitia oso konplikatu da. Hiru lehengai dauzka; larrua, egurra eta metala eta hiru lehengai horrek lantzen jakin bihar da. Mendira jua eta egurra aukeratu bihar da, neurri eta formaren arabera. Gero egurra markatu, eta neguan ilbeheran ebagi eta tailarrera ekarri. Gero hiru astian lagatzen da hiltzen, ze egurra bizirik egoten da, eta indarra eukitzen dau. Horren ostian sutan egosi eta zuzendu egiten da. Gero azala kendu eta urtebete geldu lagatzen da eta gero bestelako materixalak landu eta gehitzen jakoz, goiko kerteneko txapia doblau, soldau, kono bat egin, gero larrua ipini, grabatua egin... eta mila gauza.

Eta zela ikasi zenduan hiru lehengaiok lantzen?

Neure kontura jua naiz ikasten, lan asko eginda. Ni, Euskal Makilia ezagutu aurretik bastoieri larrua ipintzen hasi nintzan neure kontura eta tailatzen bebai pixkat. Larrua ipintzen hasi eta gero, ko-



Aitor Amor bere bildumarako eginda dauzkan makiletako batekin.

“ 1984an egin neban nere lehenengo euskal makilia, anaiarendako ”

ñatuak Euskal Makila bat ekarri zotan. Asko gustau jatan baina ez nekixan zela egin. Makila haura Irunen Euskal Makilak egiten hasita zeguan Iñaki Alberdirenana zan eta beregana jua nintzan zela egiten zituan ikustera. Harek montau egiten zituan baina larrua lantzen erakutsi zotan. Metala grabatzen banekixan lehendik, gaztetan (15 urtekin) eskopetak egiten hasi nintzan Arizagian eta Eibarren Union Armeran bebai. Adarra lantzen be plazentziatar batek erakutsi zos-

tan bertan, baina oso zaila da lortzeko eta hori da kanpotik, Frantziatik, eginda ekartzen doten parte bakarra. 1984An egin neban nere lehenengo Euskal Makila, anaiarendako, 36 urte nituala, bastoiak egiten hasi eta urtebetera.

Ze egur mota erabiltzen dozu gehixen?

Nik gorostixa erabiltzen dot normalian, kanpotik ekarrita, asko dagan tokitik. Egurrik onena da neretako, kalidade onena daukana. Nik badakit zela moztu bihar dan eta zuhaitzari kalterik egin bari hartzen dot bere sasoi. Hemen piñuak jan dau dana. Mizpirua edo arantzia be erabiltzen dot edo beste egur motaren bat bebai, hala eskatzen badoste.



Honetatik bakarrik bizi leike?

Bai, baina nik egiten doten moduan dana eskuz eta neuk eginda ez. Nik dakitela 5-6 bakarrik dira daren euskal makila egiliak. Hiru iparraldian eta hiru hegoaldian eta bakoitzaren makila bat daukat. Batzuk horretatik bizi dira baina makilak seriean egiten dituztelako, urtian 400 edo 500. Nik 12 makila inguru egiten ditut urtian, danak enkarguz. Egunian hiru ordu inguru lan eginda. SAPAn lan egin eta gero, eguerdixan pixkat eta arratsaldetan ixa denbora guztixa nere tailarrian emoten dot. Makila bakoitza egiteko 40 ordu inguru bihar izaten da. Nik dakitela, metala grabatzen doten bakarra naiz, bestiak puntzoiakin egiten dabe. Nik makilak hola egiten jarraitzia nahi dot.

BITXIKERIAK

TXOKOKO ERRETRATUA ETA ZINTA DANTZA

Aitorrek kontatu digunez, Irungo makilagilearengana joan aurretik, oraindik eraberritu gabe zegoen Txoko tabernan zegoen euskal makila baten erretratuari begira egoten zen. Uztapide bertolaria azaltzen omen zen erretratu hartan, Euskal Makila bat eskuan zuela. Orduan tabernari zegoen Agustinek behin baino gehiagota esan omen zion, "hainbeste begiratuta honezkero erretratu be gastauta egongo dok!". Behin eta berriz begiratzen zion Aitorrek erretratu hartako makilari eta ez zuen etsi haren moduko makila bat egin zuen arte. Orduan hasi berria zen makilagintzan eta makila hari larrua jartzeko teknika berria ikasi behar izan zuen, dantzariak egiten duten "zinta dantzarena" hain zuzen ere. Txistularia izanda ondo ezagutzen zuen dantza hori baina kostatu zitzaion 20 zinta makilara behar bezala egokitzeko era asmatzea.

“ Nik urtian 12 makila inguru egiten ditut, danak enkarguz. Makila bakoitza egiteko 40 ordu inguru bihar izaten ditut batazbeste ”



Mendian batutako egurrak lehortzen.

Makila garestiak izango dira.

Makilak 450 eurotik hasi eta 1.300 euro bitartekoa egiten ditut, segun zer eskatzen dosten. Hemen ez dago ohiturarik eskulana apreziatzeko. Azoketan eta sarri, jentia hurbiltzen da eta esaten dosta oso garestiak dirala. Hala da, baina horren atzian dagan lana eta materiala? Autuak be modelo eta prezio ezberdinetakoa izaten dira; Renault, Seat, Mercedes... Hemen ez da ezagutzen Euskal Makila zer dan eta atzetik daukan lana. Baina batzuk oso gauza polittak esan dostez eta horrek emoten dotsu indarra aurrera jarraitzeko. Frantzia aldi-aldi gehixoa ezagutzen da. Eskopetagintza berriz mundu guztian ezagutzen da...

Eta zela saltzen dituzu?

Azoketan, katalogo bidez... 1990Ean jua nintzan lehenengo azokara, Tolosara. Hantxe saldu neban lehenengo makila. Handik aurrera azoketara jua nintzan. Oin ezaguna naiz eta jentia

EUSKAL MAKILA

DENFENTSAKO ARMA IZATETIK OPARI GAI IZATERA

Han eta hemen dagoen dokumentazio apurra begiratuta Aitorrek jakin ahal izan duenez, Euskal Makila artzai makilaren garapenetik dator. Makila arruntari punta zorrotza jartzen hasi omen zitzaizkion defentsarako. Esaterako, mende hasieran Baionan debekatua izan omen zen euskal makila erabiltzea azoketako borroketan aurkaria zauritzeko erabiltzen omen zelako.

Gaur egun euskal makila oparigai garesti bezain estimatua da. Agintezko eta Ohorezko makila motak egiten dira, punta zorrotza azpitik edo erditik zabaltzen zaionaren arabera besteak beste. Euskal Makilaren esanahi eta balioaren erakusgarri den gertaera bat kontatu digu Aitorrek. Behin Suitzako bankero batek eskatu omen zion euskal makila bat. Makila egin aurretik oraindik zion eta helarazi zionean zera esan; "espero dut makila hau nere semeari urte askoan ez ematea!". Era berezian oroitzen du Aitorrek gizon haren esana.

etortzen jata hona. Enpresarixuak erosi izan doste Alemaniara, Indonesiara... eruateko. Nik saltzen ditut eta badakit batzuk oso jente garrantzitsuarendako izaten dirala baina ez dakit zeinendako. Jaurlarizatik be eskatu izan doste.

Sentimendu bereziak izango dituzu makila bat amaitutakoan ezta?

Noski baietz. Oin pixkat ohittuta nago baina edozein bariante egiten dotenian gero penaz egoten naiz saltzeko. Ez danak, baina normalian beste bat iguala egiten dot nik gordetzeko.

Galipoteko jaixa maiatzaren 29an

Maiatzaren 29an, larunbatean, Galipoteko jaixa ospatuko da lehen aldiz gure herrian. RKZULOK bultzatuta, lagun talde batek Soroluzeko egutegia gorri margotzea erabaki du kalezulo bitxi honen omenez. Honako egitaraua presatu dute:

- GOIZEZ:**
- Buruhaundiak
 - Salda eta txorizoa Plaza Barrian
 - Triki Poteoa
 - BAZKARIA Galipotian (kabitzen diren guztientzat)
- ARRATSALDEZ**
- Pailazoak
 - Kontzierto akustikoa Galipotian (-BAZKARITARAKO:
 - Menua: pikatzekuak, patatak errioxar erara, mantekaua, kafia eta kopia.
 - prezioa: 10 euro
 - izena emoteko: Gila, Gaztelupe eta Arranoan.)



Musika eskolako matrikulazioa zabalik 15 instrumenturekin

Dagoeneko zabalik dago 2004/05 ikasturtean Musika Eskolan izena eman ahal izateko epea. Datorren ikasturterako honako eskeintza egiten du musika eskolak:

- Lau, bost eta 6 urtekoendako
- Zazpi urtetik gorakoek; klarinetea, akordeoia, txistua, saxofoia, flauta, tronboia, trikitixa, pianoa, tronpetta, gitarra, biolina eta panderoa jotzen ikasteko aukera izango dute.
- Hamalau urtetik gorakoek musika modernoari dagozkion instrumentuak jotzen ikasi ahaliko dute; bateria, baxu elektrikoa eta gitarra elektrikoa besteak beste.

Izema eman nahi duenak, astelehenetik ostegunera, 17etatik 20etara izangodu horretarako aukera, Institutuko eraikinean, ekainaren 4rarte. Bestela, 686263474 telefonora deituta (Itziar / Nagore) ere eman daiteke.

Datorren maiatzaren 19an, Musika Eskolak emanaldi bat eskeiniko du ikastolako frontoian, matrikulazio kanpainaren irekiera dela eta.

Pintura lehiaketa 29an

Datorren maiatzaren 29an egingo da Udalak antolatutako pintura lehiaketa. Izen ematea egunean bertan egin beharko Udalean, goizeko 9etatik 10etara bitartean. Bi maila bereiztuko dira, 14 urte artekoak eta 14 urtetik gorakoak. 600 Euroko sari nagusi bat izango da.

San Miguel santua Karakaten azaldu da

Joan zen irailean Bergarako Angiozar auzoko San Migel jaietan zeruratutako santua Karakaten azaldu da. Perretxikotan zebilen Debagoiendar batek aurkitu zuen eta 160 euroko saria jaso du aurkitzeagatik.

Itxaropenako karta txapelketa



Maiatzaren 4an egin zen Itxaropenako karta txapelketako sari banaketa. Tutean txapeldunak Pedro eta Anjel izan ziren, musean, Tino eta Carmona, trukean, Ventura eta Lorenzo eta briskan, Ziriaka Aranzabal eta Maria Luisa

Alberdi. Azken hauek gainera Debabarrena eta Urola eskualdetako txapelketak irabazi dituzte. Datorren maiatzaren 20an jokatu dute finala Donostian. Lehenengo aldia da Soroluzetik finalera heltzen direna. Zorte on!



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

ARMENDIA
JATETXEA



Sukaldaritza tradizionala

Ezozl Auzoa, 11
20590 Soroluze
Tfnoa 943 75 10 02

Juani eta Jose Manuel Plaentxi Motoclub

“Motorra antiestres bat da!”

Plaentxi Motoclub elkarteko Juani Yanguas eta Jose Manuel Herasekin izan gara oraingoan. Elkarrekin ezkondua daude eta biak dira motorzaleak. Motorraren inguruko zaletasunaz berba egin dogu eurekin, bi gurpilen gainean joanda, besteak beste, abiadura, arriskua eta aurpegian haizea sentitzearen plazerraz. Elkartea 1997an sortu zuten bost motorzalek eta gaur egun 14 lagun dira. Urteroko ohitura duten moduan aurten ere antolatuko dute Motorzaleen Eguna, maiatzaren 23an hain zuzen ere.

Noiztik datorkizue motorrerako afiziñua?

J.: Neri Jose Manuelekin ezkondu nintzanetik. Ezkondu ginanian motorra erosi bihar zebala esan zoztan. Hasieran ez jatan gustatzen baina oin asko gustatzen jata. Nahiz eta nik ez gidatu inoiz.

J.M.: Neri txikitatik. Gure etxian beti izan zan motorra. Motordun kontu danak gustatzen jataz, mekanika kontuak bebai.

Sarri entzuten da motorra arriskutsuegixa dala.


J.: Motorra antiestres bat da. Nik baino hobeto ez daki inork norbait motorreran galtzia zer dan. Argi dago ez dala segurua baina gozatu egiten da. Hartu biharreko neurrixak hartzen dira eta kitto. Eskuterrekin juaten diranak izaten dira txarrenak, motorra lehenengo aldiz hartzen daben gaztetxuak.

J.M.: Ez da segurua puntu baterarte. Autuakin be, bizkor bazoiaz... motorrrian be bere neurrixan juanez gero. Baina ez zoziaz horretan pentsatzen.

Arazorik izan dozue motorrian juatiarren?

J.M.: Behin lau motor aparkaleku baten gendela esan zozkun batek zertan genbizen.

J.: Jentiak pentsatzen dau ez dogula zirkulaziñoko zergarik ordaintzen, baina



Motorzaleek beti agurtzen dute elkar zeñiu hau eginez.

Juani eta Jose Manuel bere motorra eta motorzaleen egunean zozketatuko duten motor txikia aurrean dituztela.

“Jentiak pentsatzen dau ez dogula zirkulaziñoko zergarik ordaintzen!”

ordaintzen dogu. Moteroak oso fama txarra daukagu bestela be. Juerga, alko... eta errelitatiak ez dauka horrekin zerrikusirik. Behin Amorebietan taberna baten gendela udaltzaina etorri jakun andra batek deittu zebala kriston eskandalua etaritzen genbizela, ezer egin barrik.

Zer egingo dozue motorzalien egunian?

J.: Goizian motorrian buelta bat emon, gero frontoian zeozer jan eta kitto!

J.M.: Kontua motorrian ibiltzia izaten da. Zeozer jan, zerbezatxo bat hartu eta barre pixkat egitia.

Nundik etortzen da jentia egun horretan?

J.: Inguruko herrixetatik etortzen

dira eta Donostia, Bilbo eta Errioxatik bebai. 80 Lagun inguru batzen gara. Bat Valladolidetik etortzen da urtero. Arrasaten eta Bergaran be badare motorzalien elkartiak. Eibarren bazeguan baina laga zeben.

Urtian zihar egiten dozue beste itteerarik?

J.: Bai. Valladolideko Pinguinosea, Najerara, Mirandara eta zirkuito ezagunen batera, Montvelora, Valentziara...

J.M.: Pinguinosekua izaten da haundixena. 20.000 Motorzale inguru batzen dira. Hori haundixegixa izaten da.

Egin dozuen bidaiarik luziena?

J.: Bartzelonara.


J.M.: Eta Cadizera beste behin.

Jarraitzen dozue munduko txapelketa? Faboritorik bai?

J.M.: Bai noski eta 1 Formula, motokrossa eta igoerak baita. Motorraren zerrikusixa daukan danari jarraitzen dotsagu.

J.: 500ean Rossi Yamaharekin eta 250ekoan Pedrosa.

ELIZPE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Soraluzeko Saria maiatzaren 23an

Datorren maiatzaren 23an jokatuko da Soraluzeko Sariaren VII. edizioa. Guztira 129 kilometroko ibilbidea izango du lasterketak eta Azkarateko gaina bi aldiz igo beharko dute.

Lasterketa Soraluzetik aterako da 9:30etan, eta herritik 10:52 eta 12:11an pasako direla aurrikusi dute antolatzaileek. 12:53 Ingururako helmugan izatea aurrikusten dute.

Lasterketan 23 urtez azpiko txirrindulariek parte hartuko dute eta froga puntuagarri izango da Euskaldun Garai-kurrarendako ere (23 urtez azpikoa-elite maila).

Soraluzeko Kirol Elkarteok soraluzetarren laguntza eskatu dute antolakuntza lanetan laguntzeko.



Kanporaketa berria Anoetan



Haritz Sudupek eskubaloia utzi du

Aritz Sudupe eskubaloiko jokalaria soraluzetarrak jakinarazi digunez, datorren denboraldian ez du eskubaloian jokatzeko jarraituko. Orain urtebete inguru Zaragozako Maristas taldera joan zen jokatzerako, Kataluniako ligan jokatzeke asmoz, azkenean euskal ligan jokatu behar izan dute aurretan.

Joan zen maiatzaren 1ean XIBA elkarteak Andoainen antolatutako Gipuzkoako herri kirol txapelketan parte hartu zuen 12 neska mutilez osatutako soraluzetar talde batek. Zoritxarrez, frogak hasi eta lasterrera euria hasi zuen eta bertan behera utzi behar izan zuten kanporaketa. Hala ere, datorren ekainaren 6rako antolatu dute kanporaketa berria Anoetako herrian. Kanporaketa berri horretarako talde berria osatuko dute, lehen parte hartu duten taldekide batzuek ezin dutela eta. Beraz, herri kirol-tan parte hartzeko prest bazaudete, eman izena Gaztetxean edo Pii-pileanen.

Erregionala eta jubenila salbatuak

Futbol denboraldia amaitzeaz dagoela, esan daiteke Soraluzeko erregional eta jubenil taldeak jeitsiera postuetatik kanpo daudela. Erregionalari jardunaldi bakarra gelditzen zaio jokatzeke eta 13. postuan dago 16tik 26 punturekin. Jubenil taldeari bi jardunaldi gelditzen zaizkio eta 11. postuan daude 17tik, 39 punturekin.

EMAITZAK

Futbola

-maiatzaren 1 - 2 an
Ostadar **3 - SORALUZE 1 (Erre.)**
SORALUZE 1 - Union Txiki 1 (**Juben.**)

-maiatzaren 8 - 9 an
SORALUZE 2 - Elgoibar 1 (**Erre.**)
Ostadar **6- SORALUZE 1 (Juben.)**

Esku pilota

Haritz Laskurain
Min hartuta jarraitzen du.

Aitor Atxotegi

Deba Arroko Txapelketa
(Lehenengo doaz)

Deban Varelarekin batera 22 - 9 irabazi zuen.
Oñatin Asperekin batera 22 - 10 irabazi zuen.

ETB Kantxa (4 1/2)
Atxotegi 22 - Nazabal 2
Atxotegi 14 - Linzoain 22

Azken partidu hau galdu ostean ETB Kantxako txapelketatik kanporatua gelditua da.

AGENDA

LARUNBATEAN MAIATZAREN 15EAN
San Andresen 16:30etan
Gipuzkoako Bolo Txapelketa.

IGANDEAN, MAIATZAREN 16AN
Mendi Taldearen irteera Arantzazu ondoko Enaitz mendira (1.300 metro),

FUTBOLA

MAIATZAREN 15 ETA 16AN
Zarautz - Soraluze (**Erreg.**)
Soraluze - Allerru (**Juben.**)

MAIATZAREN 23 AN
Zestoa - Soraluze (**Juben.**)

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

**HORTZ
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g
138 Postakutxa

tf: 943752150
Faxa: 943752118

SORALUZE

Virginia Iriondo

Hainbeste amets dare...

Arratsaldero, umiak ikastolatik urtetzen dabenian, ama edo aita (gehixenetan ama) egoten jakue zain meriendiakin. Halaxe topatu dogu Virginia, zatika zatika alabiari ogibitartekua emoten lagunekin barriketan diharduan bitartian. Beti goguan izango daben garai zoragarria da jolasian diharduan neskatilatxuarendako eta amarendako ere antzera. (Je, je!)

Izen-abizenak, edadia ta lanbidia.

Virginia Iriondo, 39 urte eta etxeko andria.

Gustoko menua.

Ensaladia, txuletia patatekin... gutxi gorabehera sagardotegiko menua.

Denbora librian zer egittia gustatzen jatzu?

Piszinara jua, bizikletan ibili... Uda partian hondartzara eta mendira jua be gustatzen jata. Oin momentuan autoeskolan nabil teorikorako preparamatzen.

Orduan udarako kotxia?

Hori espero dot!

Amets bat.

Hainbeste amets dare... Bat aukeratzekotan, nere inguruko danak ondo egotia eta ni be ondo eta pozik bizitzia.

Gustoko mutilak...

Pertsona ona, umoretsua eta buru pixkatekua izan bihar dau. Erakargarria bada, hobe.

Udaberririk zer ekartzen dotsu gogora?

Poztasuna, baina azkenengo egunetan daukagun eguraldixakin...

Zelako pertsonak ezin dittuzu jasan?

Hipokritak eta bestien bizitzetan sartzen diranak.

Eta zelakuak atsegin dittuzu?

Pertsona moduan onak diranak.

Alaba bat daukazu, zelan aldatzen da bizitza ama egitten zaranian?

Ondo eta asko pentsatu bihar da seme edo alabarik euki aurretik, bizitza zihero aldatzen jatzu eta.

Ama izatian larrosia eta arantzia.

Larrosia, ba zure bizitza dirala, dana

Bertso Begiz

*Arratsalderokua
merienda jana,
ez da izaten motza
baina ez da lana,
gustora juaten da
alabarengana,
zoriontasun jaten
bixak erdibana.
Gauza berezixa da
izatia ama.*

Etxebarri

(Doinua: Bizkaiko aberatsak...)



Virginia Iriondo

emoten dotsue. Arantzia berriz, oso zaila dala eta askotan ez dakizu zer egin eta zelan segi aurrera. Hasieran pentsatzen nebana baino zailagua da! **Txiste bat kontauko dotsezu Pilpileaneko irakurlieri?**

Andra bat zaharren egoitza batera eruaten dabe bertan bizitzeko eta bertan nobixua topatzen dau, parkinsona daukan gizon bat. Lagunek galdetzen dotse: *ta, ze moduz parkinsonakin?* Eta andriak: *Jo, ez dakizue ze ondo!!*

Lakuesta

Optika



Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze

Tfnoa 943 75 30 59



**HNOS. BENITO
ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Argazki zaharra



Iturria: Victor Trebiño

San Ignacio musika banda

San Ignacio musika bandaren argazkia. Gerra osteko urte zailetan lanak lagatzen zotsen denboran entsaiatuta Plazentziako girua alaitu zeban musikari taldea. Ezagunak ziran Plaza Zaharrian egiten zituzten emanaldiak eta herrixan zihar egindako kalejirak.

Goiko lerroan (ezk. eskubira) Paco Ucin, Galarraga, Migel Argarate, Herman Oregi, Floren Gonzalez, Antonio Larrañaga, Serapio Galarraga, Errenteri, Jauregi.

Erdiko lerroan (ezk. eskubira) Jose Luis Ucin, Pasajes, Jose Valencia, Ignacio Aristi, Ciordia, (ezezaguna), Pepe Guridi, Pedro Guridi, Pedro Galarraga, (Ezezaguna).

Behoko lerroan (ezk. eskubira) Alfonso Aristi, Timoteo Urizar, Elgeta, Jose Luis Bolunburu, Manolo Kerejeta, Laureano Aristi eta Jose Ramon Oregi.

Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan honetan?

Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

DEITTU
943 75 13 04 ra

erantzuna...: **Erlaegi baserria**

...eta irabazlea: **Iker Aldazabal**

Aurreko alean...



SAN ANDRES Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46



Jose Antonio S.L.
igeltzeritza

Gabolatz, 19 - Telefonoa 943 75 11 14 - 943 75 24 49
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)



IKERLEKU

PODOLOGIA ZENTROA

Oinetako gaixotasunak

Azterketa biomekanikoa

Kirol podologia

Neurrira egindako plantillak

Ikerleku zeharbidea Bergara 943 76 07 84

Talogintza Ikastaroa

Animatu eta ikasi!!

MAIATZAK 22 LARUNBATA

- Goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:00tara
- Plaza Barrixan
- Izen ematea:
Gaztelupe, Arrano, Iratxo, Pil-pilean, eta Gaztetxean
- Ikastaroaren prezioa 5euro

ANTOLATZAILEAK:
PIL-PILEAN eta UDALA





INFORMAZIOA:
Makina Erremintaren Institutua

Azkue Auzoa, 1 - 20870 ELGOIBAR
Tel. 943 74 82 65 - 74 41 32
Faxa. 943 74 41 53
emaila: nekane@imh.
www.imh.es



Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako
Ikastetxe Publikoen sareko partaidea



Izena emateko epea:

2004-2005 IKASTURTEA

HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A eta D ereduak)

- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Industri Ekipoen Mantenimendua

ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- Mekanizazioa **berria** ★
- Makineria eta Linea Eroanbideen Instalazio eta Mantenimendu Elektro-Mekanikoa

ATE IREKIAK:

maiatzaren 20an eta ekainaren 3an,



ekainaren 1etik 9ra, biak barne

EZOZIA JATETXEA

Zatoz eta gozatu
gure jakiak!



EZOZI jatetxean bazkari eta afaririk
ederrenak preziorik onenean.

Eguneroko menua
eta aukera zabala kartara.

Ezozia Auzoa Tel: 943 751001 SORALUZE